Hernaniko Udala

HERNANIKO 2025EKO ASFALTATZE-PLANA

MEMORIA

1. PLANAREN HELBURUA ETA AURREKARIAK

Asfaltatze-plan honen helburua Hernaniko hainbat kale eta herri-bidetako zoladura berritzea edota birgaitzea da. Berritze horiek eremu batzuetan bere osotasunean burutuko dira eta beste batzuetan zatika; gainera, puntu zehatz batzuetan azaldutako patologiak ere konponduko dira.

Txosten honetan egin beharreko lanak zehazten dira; horretarako, Hernaniko Udaleko Herri-lanak Saileko teknikariek egindako ikuskapenetan bildutako informazioa erabili da.

2. AURKITUTAKO PATOLOGIEN AZALPENA ETA ARRAZOIAK

Aztertutako kale eta herri-bideetako zoladura oso hondatuta dago; pitzadura, koska eta azalerako kalte ugari daude, eta horiek lehenbailehen konpontzea beharrezkoa da. Gainera, kalte handiagoak (pitzadura handiak, zuloak, ondulazioak...) dituzten zatiak ere badaude, eta, horregatik, zati horietan konponketa sakonagoa egitea beharrezkoa da.

Hainbat dira zoladuraren hondatzearen arrazoiak, baina arrazoi nagusiak ondorengoak dira: erabileraren ondorioz sortutako higadura, trafiko astunaren eragina eta zoladuraren adina.

3. AUKERATUTAKO SOLUZIOAK

Aurkitutako higaduraren eta bidearen beharren arabera hainbat konponketa-mota edota tratamendu egingo dira:

<u>Errodadura-geruzaren sendotze-tratamendua</u>

Tratamendu honen bitartez, higatutako zoladuraren gainean 5cm-ko lodierako asfalto-geruza zabalduko da, AC16 50/70 D OFITA motakoa. Horretarako, aldez aurretik, azpiko geruza prestatu beharko da eta irrigatze itsasgarria zabalduko da.

Tratamendu hau azalera hondatuta duten eremuetan egingo da, beti ere inguruko baldintzek bukaerako kota mugatzen ez dutenean.

Egin daitekeenean, lehentasuna duen tratamendua izango da hau, gaur eguneko zoladura mantentzeak sendotasun estrukturala emango diolako, eta gainera, hondakin gutxiago sortzen delako, eta horrek hondakinen kudeaketa beharra murrizten duelako (ingurumenerako jasangarriagoa).

<u>Errodadura-geruzaren berritze-tratamendua</u>

Tratamendu honen bitartez, gaur eguneko errodadura-geruza kenduko da hura fresatuz, eta ondoren 5cm-ko lodierako asfalto-geruza berria botako da, AC16 50/70 D OFITA motakoa. Geruza berria zabaldu aurretik, azpiko geruza prestatu beharko da eta irrigatze itsasgarria zabalduko da.

Hernaniko Udala

Tratamendu hau azalera hondatuta duten eremuetan egingo da, inguruko baldintzek aurretik zegoen bukaerako kota mantendu beharra mugatzen dutenean.

Saneo-tratamendua errodadura-geruzaren sendotze-eremuetan

Tratamendu honen bitartez, hondatuen dauden eremuetan fresatze edo eraispen lanak egingo dira aldez aurretik, irrigatze itsasgarria zabalduko da ondoren eta AC16 BASE 50/70 G CALIZA motako asfalto-geruza zabalduko da. Azkenik, irrigatze itsasgarria zabalduko da eta 5cm-ko lodierako asfalto-geruza zabalduko da, AC16 50/70 D OFITA motakoa.

Tratamendu hau hondatze handia duten zatietan egingo da, beti ere inguruko baldintzek bukaerako kota mugatzen ez dutenean.

Saneo-tratamendua errodadura-geruzaren berritze-eremuetan

Tratamendu honen bitartez, hondatuen dauden eremuetan fresatze edo eraispen lanak egingo dira aldez aurretik errodadura- eta oinarri-geruzetan, irrigatze itsasgarria zabalduko da ondoren eta AC16 BASE 50/70 G CALIZA motako asfalto-geruza zabalduko da. Azkenik, irrigatze itsasgarria zabalduko da eta 5cm-ko lodierako asfalto-geruza zabalduko da, AC16 50/70 D OFITA motakoa, aurreko bukaera kota mantenduz.

Tratamendu hau azalera hondatuta duten eremuetan egingo da, inguruko baldintzek aurretik zegoen bukaerako kota mantendu beharra mugatzen dutenean.

Hormigoi armatuzko lauzak herri bideetan

Hainbat herri-bideetan ez dago gaur egun zoladurarik. Zoladura egonkorra izateko, lehenik eta behin bidearen oinarria prestatuko da, maldak egokituko dira eta soberan egon daitekeen materiala hondakindegira eraman beharko da.

Ondoren, HA-25 hormigoiarekin hormigoi armatuzko lauza eraikiko da, 15x15x8 burdin-sarearekin eta 15cm-ko lodierakoa, aldez aurretik oinarria prestatzeko 20cm-ko lodiera arteko hartxintxarra hornitu eta zabalduta, beharrezkoa izanez gero.

Azkenik, eraikitako lauzaren alboko ertzak beteko dira, koskarik ez izateko, beharrezkoak izan daitezkeen material-ekarpena, profilatzea eta trinkotzea eginez.

Bidegurutzetako tratamendua

Tratamendu honen bitartez, 5cm-ko fresatze lanak egingo dira, ondoren irrigatze itsasgarria zabalduko da eta 5cm-ko asfalto-geruza berria zabalduko da, AC16 50/70 D OFITA motakoa.

Tratamendu hau, egiten ari diren asfaltatze-lanek beste bide, kale edo sarrerekin dituzten loturetan egin beharko da, asfaltatzen den bidearen kota igotzean koska sortzea ekiditeko.

Aldez aurreko lanak

Berritu beharreko kale eta herri-bideetan zoladuraren egitura hautsi dela ikusten den kasuetan, pabimentazio-lanak egin aurretik, behar bezain beste sakonduz saneatu beharko da, eta oinarri-geruzak berritu beharko dira.

Erregistro-tapak, piboteak eta mugatze-bandak

Asfalto-geruza berria zabaldu eta gero, asfaltatutako eremuaren barruan beharrezkoak diren erregistro-tapa eta txapel guztiak kota berrira egokitu beharko dira.

Herri-lanak Sailak erregistro-tapa horietako bat berritzea erabakitzen badu, esleipendunaren esku jarriko ditu aldatu beharreko tapa eta marko berriak, eta jarraitu beharreko irizpideak ezarriko ditu.

Tamaina ezberdineko piboteak eta hainbat funtzio betetzen duten elementuak ere aurkitu daitezke: kontenedoreen-babesak, zuhaitzak, zerbitzuen kanalizazioak, etab. Horien artean lanak oztopatzen dituztenak aldez aurretik kendu beharko dira, eta asfaltatze lanak bukatzean lehenbailehen berrezarri.

Hormigoizko lauza, ubide eta zintarrien konponketak

Asfaltatu beharreko eremuetan, edo horietatik kanpo, asfaltatu aurretik hainbat konponketa egitea beharrezkoa izango da hondatutako lauza, ubide eta zintarrietan.

Bestade, herri-bideetako zati batzuetan pabimentatutako ubiderik ez dago gaur egun, eta asfaltatze-lanekin batera beharrezkoa da pabimentatutako ubide horiek eraikitzea, batetik, ubideen funtzionamendua hobetzeko, eta, bestetik, haien etorkizuneko mantenua errazteko.

Udal teknikariek adieraziko dute zein elementu konpondu behar diren aldez aurretik.

4. LANEN DESKRIBAPENA

4.1. USATEGIETA BIDEA

Herri-bide hau Ibarluze poligonoan hasten da eta Pardiolako bidegurutzean amaitzen da.

Egin beharreko lanak bi zatitan banatzen dira: lehengo zatia Eguntxinta baserrian hasi eta Olaziregin amaitzen da, eta bigarren zatia Oindipe baserrian hasi eta Pardiolan amaitzen da.

Konpondu beharreko bide-zatiaren luzera 1380m ingurukoa da eta batazbesteko zabalera 3m ingurukoa.

Bide honetan egiteko nagusia errodadura-geruzaren sendotze-tratamendua da. Zati batzuetan aldez aurretik zegoen geruza kentzea beharrezkoa izan daiteke, oso hondatuta dauden zatietan, hain zuzen ere.

Hernaniko Udala

Bidegurutzeetan eta jabetza-sarreretan bideak zabalera handiagoa du. Haietan ere asfaltoa berrituko da, dauden zabalerak mantenduko dira, eta beharrezko juntura-tratamenduak egingo dira.

4.2. ARGINDEGI BIDEA (SAROBE)

Herri-bide honetara Osinaga auzoko Otsuenea eremutik heltzen da.

Bidearen zati handienak hormigoizko zoladura du gaur egun, baina gainontzeko zatiak ez, eta amaieraraino jarraipena eman nahi zaio. Horretarako, bidean dagoen materiala edo legarra egokituko da eta haren gainean hormigoi armatuzko lauza eraikiko da.

Konpondu beharreko bide-zatiaren luzera 80m ingurukoa da eta batazbesteko zabalera 3m ingurukoa da.

Bidegurutzeetan eta jabetza-sarreretan bideak zabalera handiagoa badu, dauden zabalerak mantenduko dira, eta beharrezko juntura-tratamenduak egingo dira.

4.3. ORKOLAGA BIDEA (JUANANTONENEA)

Herri-bide honetara Akarregi poligonotik heltzen da.

Bidearen zati handienak hormigoizko zoladura du gaur egun, baina zati txiki bat falta da, eta zoladurari jarraipena eman nahi zaio. Horretarako, bidean dagoen materiala edo legarra egokituko da eta haren gainean hormigoi armatuzko lauza eraikiko da.

Konpondu beharreko bide-zatiaren luzera 115m ingurukoa da eta batazbesteko zabalera 3m ingurukoa da.

Bidegurutzeetan eta jabetza-sarreretan bideak zabalera handiagoa badu, dauden zabalerak mantenduko dira, eta beharrezko juntura-tratamenduak egingo dira.

4.4. ALTUNA BIDEA

Herri-bide honetara Osinaga auzotik heltzen da.

Pardiola bideko zati handiena asfaltatuta dago gaur egun, baina Altuna baserriko sarrera falta da, eta zoladurari jarraipena eman nahi zaio. Horretarako, bidean dagoen materiala edo legarra egokituko da eta haren gainean hormigoi armatuzko lauza eraikiko da.

Konpondu beharreko bide-zatiaren luzera 110 m ingurukoa da eta batezbesteko zabalera 3m ingurukoa da.

Bidegurutzeetan eta jabetza-sarreretan bideak zabalera handiagoa badu, dauden zabalerak mantenduko dira, eta beharrezko juntura-tratamenduak egingo dira.

4.5. APARRAIN BIDEA

Herri-bide hau Ereñotzuko Ugaldetxo baserriaren inguruan hasi eta Aparrain baserrian amaitzen da.

Duela urte batzuk herri-bidearen zoladura egokitu zen, bi faseetan, lehenengo fasean garaztatze-hirukoitza eta bigarrengoan asfalto hotza erabilita. Aukeratutako soluzioek autoen errodadura hobetzea zuten helburu, gutxieneko inbertsioa eginda, baina bidearen egonkortasunean ez zuten hobekuntza handirik eragiten.

Ez zen aurreikusten zamadun ibilgailu gehiegi bertatik igarotzea, baina, azken urteetan, horrelako ibilgailuek erabili dute herri-bidea eta horren ondorioz zati batzuetan hondatuta dago. Hori dela eta, kaltetuen dauden lau zatietan errodadura-geruzaren berritze-tratamendua egitea aurreikusten da.

4.6. HERRI EREMUAN ZENBAIT EKINTZA

Aurreko ataletan deskribatutako lanak egiteaz gain, herriko hainbat kale eta aparkalekuetako errodadura-geruzaren berritzea egingo da eta zati txikiagotan koska edo zuloen konponketak egingo dira.

Kasu guztietan errodadura-geruzaren sendotze-tratamendua lehenetsiko da, horrela, sortutako hondakinen kopurua murrizteko, baina beti ere inguruko zerbitzuei eragina kontuan izanik.

Asfaltatu beharreko eremuen zabalera aldakorra da eta aparkaleku, zerbitzuen kutxatila, pibote eta koska ugari daude.

Lanak egin aurretik beharrezko pibote eta elementu guztiak kenduko dira eta lanak amaitzean berrezarri beharko dira.

Batzuetan, arketa edo kutxatilen erregistro-tapak asfalto berriaren mailara egokitu behar izatea aurreikusten da.

Zoruko seinaleztapen guztia margotu beharko da asfaltze-lanak amaitzean, aparkalekuak barne.

Konponketa hauek ondoren adierazitako kaleetan egitea aurreikusten da, baina lanak egin aurretik edo bitartean baliteke aldaketak ematea edo zati berriak gehitzea udal teknikariek horrela adieraziz gero.

- Zinkoenea Zubia - Gartzia Goldaratz
- Zinkoenea Zubiko autobus geltokia
- Antziola kalea Zinkoenea - Ezkerro Fruituak
- Elkano kalea – Ezkerro Fruituak

- Marieluts auzoko biribilgunea - Urbieta kalea.
- Montebideo kalea: LIDL – biribilgunea
- Gartzia Goldaratz auzoa: Balbi-Correos
- Zikuñaga auzoa: Loire
- Aristizabal kalea (Atsegindegi – Iturregi)
- Akarregi Poligonoa 12
- Latsunbe Auzoa 4 bidegorri eta aparkalekuak.
- Txirrita kalea oinezkoen pasabidea
- Sagastialde kalea oinezkoen pasabidea
- Sorgintxulo - Meabe Ikastetxea oinezkoen bidea.
- Zehaztu gabeko zuloguneak (10 metroko 3 unit)

5. KALITATE-KONTROL PLANA

Esleipendunak *Pliego de Prescripciones Técnicas Generales para Obras de Carreteras y Puentes (PG-3)* izeneko pleguko 211, 212, 214, 510, 530, 531, 542 y 543 artikuluetan zehaztutako saiakuntzak eta haiek egiteko maiztasunak bete beharko ditu.

Lanak hasi aurretik, esleipendunak kalitate-kontrol planaren proposamena aurkeztu beharko du. Proposamen horretan beharrezkoak diren moldaketak egin beharko ditu, lanen zuzendaritzaren onarpena lortu arte.

Esleipendunak saiakuntza guztien kostuak beregain hartuko ditu. Izan ere, kostu horiek kontratatutako prezioen barne daude aurrekontuaren %2ko mugara heldu arte. Hala ere, ezingo dira kalitate-kostu bezala ondorengoak onartu (hauek esleipendunaren zeharkako kostuak direlako, ez egindako lanarekin zuzen lotutakoak):

- Edozein material mota onartzeko aldez aurretik egin beharreko edozein saiakuntza.
- Erabilitako harrobietan egin beharreko edozein saiakuntza.
- Pleguan adierazitako mugak edo baldintzak betetzen ez dituen edozein saiakuntza, hau da, saiakuntza gainditzen ez dutenak.

Lanen zuzendaritzak, aurretik adierazitako kalitate-kontrol planeko saiakuntzez gain, beste saiakuntza osagarriak ere agindu ahal izango ditu aurretik egindakoen emaitzak egiaztatzeko.

Horiek horrela, lanen zuzendaritzak bere iritziz beharrezkoak diren saiakuntza osagarriak agindu ahal izango ditu kalitate-kontrola bermatzeko, eta horrela izanez gero, esleipendunak beregain hartu beharko du haien kostua aurrekontuaren %1ko mugara iritsi arte.

6. SEGURTASUNA ETA OSASUNA

Esleipendunak urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretua bete behar du; dekretu horretan, eraikuntza lanetan bete beharreko gutxieneko segurtasun eta osasun neurriak ezartzen dira. Horretarako, segurtasun eta osasun azterketa ez duten lanak direnez, egingo diren lanen arriskuen ebaluaketa aurkeztu beharko du aldez aurretik, edota segurtasun eta osasun plana, hura beharrezkoa izanez gero. Nolanahi ere, lanak hasi aurretik, sustatzaileak izendatutako segurtasun eta osasun koordinatzaileak arriskuen ebaluaketa edo plan hori onartu beharko du.

Arlo honetako kostuak aurrekontuko gastu orokorren barne daude, alegia, ez dago kostu horientzat bestelako partida berezirik. Lanak egiten diren bitartean trafikoa desbideratzeko eta trafiko aldakorra mantentzeko beharrezkoa den behin-behineko seinaleztapen guztia ere aurrekontuko prezioen barne dago.

7. HONDAKINEN KUDEAKETA

Esleipendunak ekainaren 26ko 112/2012 Dekretua bete behar du. Dekretu horretan, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen da.

Arlo honetako kostuak aurrekontuko gastu orokorren barne daude, alegia, ez dago kostu horientzat bestelako partida berezirik.

8. EXEKUZIO-EPEA

Lanak hainbat fasetan egingo dira. Lanen zuzendaritzarekin adostuko da egin beharreko lanen hurrenkera; horretarako, eguraldia eta lanek trafikoan sortu dezaketen eragina aztertuko dira. Zulo eta kosken konponketa lanetan bereziki esleipendunak lanen zuzendaritzak adierazitako datetan egin beharko ditu lanak.

Nahitaez bete beharreko EPE PARTZIALA ezartzen da, 2026KO OTSAILAREN 15, data hori baina lehen amaitu behar diren lanentzat. Honako hauek dira:

- Zinkoenea Zubia - Gartzia Goldaratz
- Zinkoenea Zubiko autobus geltokia
- Antziola kalea Zinkoenea - Ezkerro Fruituak
- Elkano kalea – Ezkerro Fruituak

Bestalde, kontuan izanik euria egiten duenean ezingo dela lanik egin, 4 HILABETEKO EPEA aurreikusten da lan guztiak amaitzeko.

Hernaniko Udala

9. AURREKONTUA

Txosten honetan zehaztutako lanen aurrekontua 331.987,45 €-koa da (401.704,81 € BEZ barne).

10. PLANOAK

Txosten honen amaierako eranskin batean egin beharreko lanen kokapen-planoak daude.

Hernanin, 2025eko azaroaren 28an

ANDRES MARIA ORBEA ESTEBANEZ - 72487037F

Firmado digitalmente por ANDRES MARIA ORBEA ESTEBANEZ - 72487037F
Fecha: 2025.11.28 13:17:22 +01'00'

Herri-lanak Saileko Arduraduna

Hernaniko Udala

1. ERANSKINA: AURREKONTUA

Hernaniko Udala

2. ERANSKINA: PLANOAK